

dibulgazioko koaderno

agerikotasuna

eta lesbianismoa



**"A Chloe le gustaba Olivia... No se cobrecalló. No se ruborizó. Admitamos en la intimidad de nuestra propia sociedad que estas cosas ocurren a veces. A veces a las mujeres les gustan las mujeres. A Chloe le gustaba Olivia, leí. Y entonces me di cuenta de qué inmenso cambio representaba aquello. Era quizá la primera vez que en un libro a Chloe le gustaba Olivia."**

**Virginia Woolf. Una habitación propia.**

## **Dibulgazioa berria "Gereitasuna eta Lesbianismoa" nº 2**

**Berria 2007**

**ISBN: 978-84-96112-02-2**

**koordinatzaile: Sexu eta eskolaren buruzko ikerketa eta Dokumentazio Zentroa.**

**Laguntzaile:**



■  
**Biakiko Foru  
Aldundia**  
Lehendakaria Lehen  
■

**Diputazioan Foru  
de Biskaiak**  
Departamentu de Foruak

# SARRERA

**Hasteko,  
ariketa bat  
jarriko  
dizugu:**

• Idatzi bost gay ezagunen izenak:

1 \_\_\_\_\_

2 \_\_\_\_\_

3 \_\_\_\_\_

4 \_\_\_\_\_

5 \_\_\_\_\_



• Idatzi bost lesbiana ezagunen izenak:

1 \_\_\_\_\_

2 \_\_\_\_\_

3 \_\_\_\_\_

4 \_\_\_\_\_

5 \_\_\_\_\_

Seguruenik ez duzu arazorik izango ezagunak diren gizonetako homosexualen izenak emateko, baina, ordea, arazoak izango dituzu lesbiana direla jakin dakigun bost emakumeren izenak emateko.

Izan ere, ezken urteetan nabarmen gehitu da gay diren agerikotasunak: artista, politikari, idazle, irakasle eta beste homosexual direla esanez agertu dira jendaurrean, baita militarren bat ere. Gizonetako homosexual gero eta gehiago ageri dira testuinguru publikoetan. Baina, zer gertatzen da emakume lesbianekin? Zergatik ez dira ikusgai?, zergatik hitz egiten da gubiago heizi buruz?

Dibulgazioko koaderno honetan emakume lesbianen agerikotasun ezari buruz ariko gara. **Zer da agerikotasun esa? Zergatik dirau bere herretan? Zein atzape sartarazten dio lesbiana modura bizt nahi duen emakumeari?** Interrogarritzat joko duzulaokoa egin dugu koaderno hau.

lesbianak

*lesbianak*

ikusezin

*ikusezin*

Izatea bera ukatzen die gizarteak emakume lesbianeiei eta hortik sortzen da lesbianen arazorik nagusienetakoa. Ezkututasuna eta ez izatea dira historian zehar emakumezkoen jardun homoerotikoa markatu duten ezaugarriak.

Lesbianismoari buruzko isiltasun astuna aurkitzen dugu ezagutzen dugun historian: zail da emakumezkoen arteko amodiozko harremanen gaineko historia datu eta kasurik aurkitzea. Ezinezkotzat jo izan da emakumezko batek beste emakumezko batengan sexu-grinarik sortaraztea. Eta horrela, gizonetzkoen arteko sexu-harremanak ez bezala, emakumezkoen arteko sexu harremanak ez zituzten aintzat hartu ez zutenbidean, ez medikuntzan ez eta jendarrean ere. Egoera horren adibide bat jarriko dugu: Ertaroen eta Modernitatean auzitegi iskoek nahiz elizakoek epaitu zituzten ehunka homosexualitate kasutatik ia bat bera ere ez da emakumezkoen artekoa izan.

Historialagile batzuen iritziz, esanguratsua da emakumezkoen sexualitatearen alde nabarmen bat ezabatu izana inbidipen kolektibotik. Diotenez ez zen ezjakintasun kontua izan; jakin bazekiten emakume lesbianeak zirela, baina, batez ere, ez zuten sinistu nahi.





Zer gertatu da historian zehar, mendebaldeko gure gizarte honetan, lesbianismoaren inguruan gaindiesneko hesia erakitzeko?

Arazo horri erantzuteko, lehendabizi, mendetan zehar lesbianismoari buruz hitz egitea edo eztabaidatzea eragotzi duten iritzi eta usteak alipatu behar ditugu; batetik, emakumeari berari buruzko uste eta iritzia, eta, bestetik, sexualitateari eta, bereziki, emakumezkoen sexualitateari buruzkoak.

## Azter ditzagun zeintzuk izan diren iritzi horiek?

### 1. Emakumea izatez gizona baino gubxiago da:

Gaur egun ez litzateke hain modu gordinean azalduko pentsamendu hori, baina halere, pentsamendu horiek erakli ditu, bai gizartearen eta baita jendearen buruan ere, halako egitura batzuk non emakumea gubxietsi egiten den gizonarekiko, edo emakumezkoen gauzak gizonaezkoenak baino garrantzi gubxiago duten. Horrela, emakumeen artean, edo emakumeen munduan gertatzen diren gauzak ez dute garrantzi handirik eta ez dira aintzat hartzen. Hori dela eta,

lesbianismoari ez zaio gizonaezkoen homosexualitateari eman zitzaien garrantzia bera eman. Mendebaldeko historian, lesbianismoa alipatu izan den kasu bakaretan, ikastalditzat, edo gizonaezkoen sexualitatearen emulazioztat, edo alarguntza gazteen arinkeriatzat eman dute emakumezkoen homosexualitatea, eta gizonaezko homosexualekin alderatuta, ez da horien ekintza ustel edo larritzat jo izan. Ondorioz, lesbianismoaren praktika ez zuten horien gogo zigortzen.

## 2. Sexualitateak eredu heterossexualari jarraitu behar dio:

Neskek mutlekin eta mutlek neskekin egotea da ohikoa. Neaka neskekin edo mutila mutilarekin egotea ezohikotzat jotzen da.

## 3. Gizoneshoa da sexualitatearen ardatz

[Androzentrismoa] gizonari baino ez zaio onartzen plazera bilatzeko eskubidea. Sexu kontuetan autonomia izateko gaitasuna zailtzen jarri ez ezik gaitasun hori ukatu ere egin zaio emakumeari. Emakumezkoaren sexualitate gizonetzkoen lotuta ikusten da eta, horrela, lesbianismoa izan daitekeenik ere ez da onartzen. Nola liteke emakumezko batek beste bat erakartzea?

## 4. Zakila da garrantzitsua

Jende askoren pentsamendua islatzen du ondorengo esaldi honek: Zer egiten dute bi lesbianek elkarrekin? Galdera hori nahikoa zabaldua da eta aurreitzi nabarmenak ditu. Emakume biren arteko harremanetan garrantzitsuentzat jotzen den zer hori falta bada (zakila), lesbianismoa ez da sexualitate osoa; garrantzitsua den zer hori agertu bitarteko aurrekari bat besterik ez da izango.

Dueta zenbat urte baino neurri bikiagoan baina, gaur egun ere, oraindik, lotzen dira, bai, goian adierazitako ideia horiek lesbianismoa agerikotasunik ezera zokoratzen. Sexualitate heterossexual eta androzentrikoaren irudia ez da oraindik hautsi, eta emakume lesbianek ereduak bilatzen dituztenean, homosexualitatearen irudi maskulinoegari egin behar diote aurre.

Lesbianismoa ez da gizonetzkoen homosexualitatea bezain ezaguna, gure inguruetan da eta oraindik orain garrantzi gutxiago eman ohi zaio. Egoera horretan pentsa daiteke lesbiana izatea gay izatea baino eragozgarria dela, zeren ezaguna izanik oharkearen igaro baitaiteke. Baina horrela, euren orientazio sexualaren praktika ezkuuagokoa egitera behartuta daude lesbiana asko eta asko, edo isilpean, edo gay direnak baino modu pribatuagoan bizi behar dute.

Lesbianismoaren agerikotasun azak zuzen zuzenean ukitzen dituen hiru alor aztertu nahi ditugu ondorengo orrialdeetan: autoestima, amatasuna eta zahartzaroa

# autoestima indartu

**Pertsona guztiak erakitzen dugu sexualitatea geure inguruko kultur-arrasloei erantzunez.**

**Beste horrenbeste emakume lesbianek ere.**

Bekoltzak bere buruari dion estimua, ematen dion balioa edo aintzat hartzea da autoestima. Autoestima hori bizitzako eskarmentuak baldintzatzen du eta honela dago osatuta:

- Batek bere buruarekiko dituen iritzirik
- Norbere pentsamenduak eta ezagupenak
  - Zalantzak eta intuizioak
- Gertatzen zaiguna nola interpretatzen dugun eta zein gertakari eragiten dugun
  - Emozioak, afektuak eta desioak

Oraindik gure artean inoan diraute emakume lesbianek emakume diren heinean azpibaloratzeako joera eragiten duten gizarteko mekanismoak:

- **Erruduntasun sentimendua**, eta legitimatzeko gogoia.
- Bakardadea eta bazterketa eragiten dituen **sekretua** bizitzea.
- **Gainontzekoak baino eragozpen gehiago** izatea sexu-bizipena postibotzat jotzeko.

Lesbianismoaren inguruko estigma eta auzeritziei golan aipatutako arazo horiek gaitzen zaizkenez, emakume lesbienek ahalegin handia egin behar dute autoestima oneraketa lortzeko.

Autoestima txikia izateak honako ondorio hauek ditu:

Gainontzekoengana irakitzeko mugak izatea eta, ondorioz, **desioen adierazpena murriztea, berezki desio sexuala.**

**Haspenbideak bilatzeko gaitasuna murriztu egiten da, eta, ondorioz, erabaki gutxiago hartzen da.**

**Sexu-bizipenar aurre egiteko gaitasuna eta hasfermatzaileen distortsioa.**

Gainera, autoestima txikia izateak ez du balere laguntzen antisfaterik gabe, jarrera defentsiborik gabe, eta norberak erabat onartu gabeko homosexualtasuna izateak sortarazten duen beldurrik gabe, eguneroko gatazkek gainditzeko beharrezko den trebetasuna garatzeko.

"Bestentzat" egokitutako izakiak izanik, emakumeek "beste" horietan jartzen dute euren autoestima eta eskoz gutxiago euren gaitasunetan. Ondorioz, nahikoa ohikoa da euren buruarikiko autoestima txikia duten lesbiana ugari izatea.

### **Nola indartu autoestima?**

- Desioak zehaztu eta sekatasunean gauzatu
- Ongizatea sustatu eta gaitasun pertsonala mantendu eta bultzatu
- Familiako, gizarteko eta erakundeetako egiturak aldarazi eta desio sexualen aniztasuna kontuan hartuta desio horiek baldintza berdintsuetan garatzeko aukera emanaz.







# "beste ama" ikusezina da

Miren nahikoa nagusia zen bere gurasoak dibortziatu ondoren bere amak hareman homosexual bat hasi zuenean. Ez zen omaza izan, baina behin institutuko ikastalde batean, honela esan zuen Mirenek: "Nerebaa naiz, futbolera jotzea gustatzen zait eta nire ama lesbiana da". Eskola amaitu ondoren, beste naska bat hurbildu eta honela galdetu zion: "Beretan zure ama lesbiana dela? Nire amak lesbianak dira eta orain arte ez diot inori esan".

## **Lesbianek izan ditzakete seme-alabak.**

Beste emakume bat maitatzeak ez du esan nahi emakumea antzua denik edo seme-alabak hazteko gauza ez denik. Emakume homosexual askok badituzte seme-alabak; edo adoptatuak edo lehenago izandako beste harremanen baretakoak edo famili-harrera modura dituztenak.

## **Gai honi dagokionez legeek zera diote:**

- Adopzioa eta famili-harrera arautzen dituen 1987ko Legeak ez du pertsonarik bazterzen bere orientazio sexualagatik. Edozein norbaneko helduk adopta ditzake umeak eta baita famili-harrera edo abegi programa batean umeak hartu ere, ezarritako egokitasun baldintzak betetzen baditu..

Adopzioa bikote homosexual batek egin nahi duenean sortzen dira, ordea, arazoak. Legeak ez du aukera hori onartzen.

- Lagunduriko Ugaketarako Teknikai buruzko Legeak (1988) aukera ematen die bakarrik dauden emakumeei intseminazioa erabiltzeko.

Urteak dira, alpatutako lege horien babespean, emakume lesbianek umeak adoptatzen hasi zirela; are gehiago, zenbait kasutan, zailtzat jotzen diren umeak emakumez osatutako bikoteei ematen zaizkie famili-harrera egiteko.

Bestalde, emakume lesbiana asko intseminatu dituzte espezializatutako kliniketan inolako oragozpenik gabe. Aditu batzuen esanetan, emale ezzagun baten haziaz intseminatzen diren emakume ezkongabeen %75 edo %80 bikoteen bizi diren lesbianek omen dira.

Gay eta lesbianen %23tik %50era bitartean, baina bereziki lesbianek, seme-alabak dituzte, hazi egiten dituzte eta euren bikotekidearekin maitasunean eta errespetuan oinarritutako familak osatzen dituzte. Etxe barmuan beste edozein familaren antzekoak dira; baina etxetik kanpora, bazterketa sozialak eta legalek arazoak sortu eta desberdintasuna markatzen dute; familia ikusezina dira.

Uma, legez, ama biologikoaren edo adoptatu duenarena baino ez da, eta legezko egoera horiek hainbat eragozpen sortarazteaz gain, bi emakumez osatutako bikoteen seme-alaben eskubideak murriztu egiten dira. Badira hainbat eskubide ekonomiko eta oinordetzakoak heterosexuaren seme-alabek bai baina

homosexuaren seme-alabek ez dituztenak.

Ez dituzte baldintza beretsuak herentzia, mediku aseguru, istripu aseguru, eta abar jasotzeko orduan. Ezate baterako, izatez bere amak diren bi emakume banatzen direnean, umeak ez du jasota bere ama ez biologikoa denaren aldetik mantenu pentsioa eskuratzeko eskubiderik. Gauza bera, ama ez biologiko hori hiltzen bada, ez da kontutan hartzen herentzia eskubiderik edo, heriotza istripuz gertatuz gero, kateordainak jasotzeko eskubidea.

Emakumez osatutako bikoteen bizimodua oso korapilotsua bilakatzen da legez bikotea ez baita existitzen umearen ogunorokotasuneko jardueretan: eskola dola, medikuntza jostea,



eta abar; ama biologikoak edo adopziozkoak besterik ezin ditu erabakirik hartu.

Neska-mutilak ez du inolako indargaririk izaten halako kasuetan, bestela baldik. Horrelako egoeretan behin eta berriro gogorarazten diote bere beste ama "ez dela inor" legez, eta ezta gizartearen zati handi batentzat ere; bere familia ez dela besteak besteakoa gogorarazten diote. Azken batean, umeak ez du inolako

legezko babesik afektuari eta emozioari dagokionez.

Umeek bi ama ditu eta biak maite ditu berdintsu, biek hazi eta hazi dutelako, baina, halere, Legeak ez du aintzat hartzen ama ez biologikoaren erola, eta ama biologikoa hilez gero, umearen eta haren arteko afektuzko eta emoziozko loturak hautsi egin daitezke. Beraz, legeek ez dute umearen ongizate psikologikoa babesten.

Ogur egun, bi ama dituzten umeek ez daude legez babestuta, baina badira zenbait datu egoera **hori epe laburrera aldatuko dela sinisteko:**

Gero eta lesbiana bikote gehiago dira legearen aldetik jasaten duten defentsa gabetia salatu eta euren seme-alabak, bikotekide biei seme-alaba modura agertzea eskatzen dutenak.



Gure gizartearen zati handi batek inolako eragozpenik gabe onartzen du sexu bereko bikoteen afitasuna edo erotasuna.



Politikoki urrats nabarmenak ematen ari dira. Inafarrian bertan bada izateko Bikoteei buruzko lege bat, non sexu bereko bikoteei adaptatzeko eskubidea onartzen zaien eta, bestalde, alderdi politikaririk gabeen ere sarri dituzte euren egitasmoetan homosexualen eta lesbienen arteko ezharitzak, heterosexuolen onura eta betebehar berberekin.

# adineko lesbianak

*adineko lesbianak*

Non daude adineko lesbianak? Zahartzaroen nabarmentzen da, bereziki, lesbianen amerikotasun eza edo ikusezintasuna. Badirudi emakume batek beste emakume batenganako desioa galdu egiten dela behin adin jakin batera ailegatuz gero. Eta hori ez da horrela inolaz ere. Ez dugu lesbiana izateari zuten urteak betetzen ditugun heinean. Horri bai, zahartzaroen aragotu egiten dira diskriminazioak eta oztopoak.

Bizi gareen gizarte honetan gaztetetasunari balio gorena ematen zaio eta agure-atsokak bigarren maila batera baztertzen dira. **Zahartzaroari bizkar emanda bizi gara**, ez dugu ikusi nahi zahartzaroa halabeharrekkoa dela, eta bizitzaro homek dituen alde onak ezabatu egiten ditugu.

Gaur egungo adineko emakume homosexualak dagokionez, badira bi alde kontutan hartu beharrekoeak:

- **Estatetik, frankismoaren garaian** egin behar izan zioten aurre euren homosexualitateari Egoera politiko eta sozial hartan, homosexualitatea gogor erreprimitzen zen eta, emakumeari dagokionez, ugalkotarekin lotutako bigarren mailako errola ematen zitzaion.

- Euren lesbianotasuna bizitzen hasi zirenean zuten giroarekin alderatuz, guztiz desberdina da gaur egun homosexualen inguruko giroa: beste klabe eta irizpide batzuekin mugitzen da.

Euren homosexualitatea **frankismoaren garaian** bizi behar izan zuten emakume hauek errepresioaren beldur askoz ere handiagoa izan zuten, askoz ere eragozpen gehiago euren burua bere horetan aintzat hartzeko, eta desio sexual ikusezin eta ukatua errealitate egiteko.



## **Batzuek euren lesbianotasuna bere gain hartu zutenean paradoxa bat izan zuten:**

batek diskriminazio edo bazterkeria ukatuzina bizi izan zuten, baina bestetik, ikusezin izateak emandako onurak ere bizi izan zituzten. Horrela, efkarekin bizi eta hamemanak izateko aukera izan zuten, euren garako gizonezko homosexualak bizi izan zuten gizarte presorik gabek: beti efkarekin bizi izan diren lagun handiak ditugu.

Politikako trantsizioaz eta sexualitatearekiko jarrera aldatetaz balaituz, batzuk "armairuk irten" ziren edo jendaurrean agertu ziren. Orain "armairua" berriro itxi eta euren buruan gelditzeko ariskutan dira. Gure gizarteak nekez onartzen du atso-agureen sexualitatea, baina sexualitate hori homosexuala edo lesbiana izanez gero, sipatu ere ez da egiten. Adierazgarri da, esate baterako, zahartzarari buruzko ikasketetan ez dela inolako sipamenik egiten atso-agureen balizko homosexualitateari buruz.

Honenbeste zailtasun izanik, norbatek pentsa izazake adineko lesbianek galduta dutela euren aukera, duten adinean behar bezalako sexualitatea lortzeko ahalagina egiteak ez duela pena merezi.

### **BAI ZERRI!**

Emakumeen bizi kalitatea, neurri handi batean, hobetu egin da eta asko dira zahartzarora baldintza fisiko zein adimeneko ezin hobean iristen direnak. Oraindik denbora luzea dugu aurretik eta sexu jarduerarako aukera ugari ere bai. Sexualitatea ez da soilik gazte eta helduen gozamenerako: bizi guztian dugu gurekin eta garrantzitsua da gure ongizatea erraztu eta arazotutako duen oro bilatzea eta erabiltzea.

Gaur egun ez da eraza adintsua izatea. Bakardadea eta diru eskasia arazo larriak izanik, arazoak arazotu egiten dira sexu bereko bikoteei buruzko araudi ezagotik eta nagusiei laguntza eskaintzen dieten zerbitzuetan euren errealitatea aintzat ez hartzeagatik.

Homosexualitatea bizitzeko modua asko aldatu da; gaur egun modu publiko eta irekiago batean bizi da, jendearen aldetik onarpen handiagoarekin, eta euren bizi osoa eskutuan eta ukazioan bizitzen ohi duta daudenezat, modu irekiago hori bere egitea zail izan daiteke.

Homosexualien kolektiboa gaztea eta zahartzarari bizkar emanda bizi dela ematen du. Homosexualien gizartertzeko balabidoak eta gureak bereziki jende gaztearentzat diseinatuta daude eta, horregatik, ez da eraza pertsona nagusiak bertaratzea, gure horiek erabiltzea zail egiten zain. Nabaria da lesbiana eta gay adintsuen interes eta aukerei egokitzeko gure kolektiboak falta direla.



**GAY ETA LESBIENEN ATENTZIO ZENTROA**

## **Sexu eta askatasunari buruzko Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa**

**Prestakuntza, informazio, laguntza eta orientazio behar diren ez ezik, jendea ezagutu eta laguntza egiteko topaketa proposatu ere badira.**

**Aldarteren web orrian [www.aldarte.org] eskaintzen dituzten zentroan dituzten liburak, bideoak eta aldizkariak zerrenda. Horrez gain, Aldarteren eskaintzen dituzten zerbitzuak eta hurrengo hitailetan zehar prestatu dituzten ekimenen berri ere jaso dezakezu gure web orrian.**

**Osoa den, gure liburuak zabaldu dituzte gukzuzen erantsaildeak, eta bertara joateko diruzko biderik zuzena. Pertsona askok eragoz dituzte harrera eta zuzen kontsultak bidaltzeko diruzte.**

**Aldartera hurbiltzerik ez baduzu, zure eskualdeko erakunde-taldekara zera atzeratu-zentroetara eta lesbianen taldekara jo dezakezu.**

**Erakundeetara ere eskaintzen dituzte informazioa: Emakundea, Diputazioak zerbitzuak eta udalbatzaletan ematen dituzten zerbitzuak.**

### **Aldarte eta Sexu-Askatasunerako Ikerketa Zentroa,**

**antzerako hitailetan aurkituko dituzte:**

**Barroeta kalea, 7 - 2,**

**48001 Bilbo**

**Tfnoa, eta faxa: 94 423 72 96**

**e-maila: [aldarte@aldarte.org](mailto:aldarte@aldarte.org) • [www.aldarte.org](http://www.aldarte.org)**

**Erakundeak: gukzuzen- aholkularitza erakundeak. Ikerketa Zentroa  
erantsaildeak- aholkularitza erakundeak: 5,30etatik 8,30etara**